

Liburuak

KRITIKA

Nora ez dakizun hori.

Irati Jimenez.

Elkar. 240 orrialde. 18,55 euro.

Helduen literatura

Amaia Alvarez Uribe



Ezina ipuinez egina

IDATZIZKO hizkuntza aberastu, osatu nahi izan du lan honen egileak, ahozko istorioak ekarri dizkigulako irakurri berri ditugun orriotara. Baina ez hori bakarrik, beste kode batzuk ere topatu ditugu bertan bi protagonisten eskutik: Martinen irudiek eta Noraren doinuek ikus-entzunezko hizkera ekarri baitigute letren erresumara.

Nora irrati esataria eta Martin argazkilaria dira liburu honetako protagonistak. Biak dira umezurtzak, bien familietan daude kontatzeko ipuinak eta hori da hain zuzen aurkituko duguna, bazkaloste edo afalostean familiari edota herrikoei buruzko gure amamen eta aititeen kontuak.

Fantasiaren liluraz gozatuko dugu, ametsen munduak inguratu-ko gaitu, mila eta bat ipuin irakurri ahal izango ditugu Sherezadere-gerizpean. Otsoekin dabilzan emakumeak egongo dira pertsonaien artean, mundua puntatik puntara ibiliko duten gizonak, pertsona askeak edo gatibuak, bakartiak edo bakarzaleak.

Bagdadeko lapurra eta alfonbra hegalaria sartuko zaizkigu orrien artean, lurralde ezezagun batera egingo dugu salto. Albistegiaren egunero agertzen zaigun munduko txoko hori, Ekialde Hurbila, beste modu batean ezagutuko dugu. Amerikako Estatu Batuetan eta Europan barna ibiliko gara eta likantropo eta banpiroak ikusiko.

Hiri askoren argazkiak daude lan honetan, pertsonaien bidaia-ki direla eta. Venezia, Bilbo eta Lisboa dira haietako batzuk. Bakar-dadea uxatzeko sortutako espazioak direla esango digute, nahiz eta askotan hori berori ekartzen duten. Bilbon bizitza eta heriotza tartekatuko zaizkie protagonistei, beti ere musikaren erritmora.

Espazioan mugitzeaz gain denboran ere aurrera eta atzera egi-ten du irakurlearen inplikazioa eskatuz, puzzlearen piezak guri emanez. Pertsonaia desberdinek kontatzen digute kontakizun honetan dagoen istorio sorta, bakoitzak bere ñabardurak gehituz eta guztien artean ipuinak osatuz. Narrazioaren erritmoa ere ondo neurtzen du, bizkortuz edo motelduz beharraren arabera.

Samurtasun handiz idatzitako liburua da hau. Lan polita egin du egileak ipuinei eta fantasiari bere omenaldia egin ahal izateko. Errealitateari eta errealismoari gorazarre egiten zaion garai hone-tan hauei begiratzeko bestelako modu bat eskaintzen digu lan honek.

Ezinezko ipuinak, ezinezko hiriak eta ezinezko maitasuna ager-tzen dira lan honetan. Hori da kontatzen zaiguna, maitasun istorio bat, *eros* eta *thanatosen* arteko lehia beste behin. Baina hemen *nabi* eta *ezin* esatera hitzen artean urtuko zaigu, gauez, hirian eta ipuin bat kontatzen diguten bitartean. ■

Antonio Arrueren idaztiak eta hitzaldiak

Euskaltzaindiak argitaratu du Antonio Arrueren *Idaztiak eta hitzaldiak* liburua, *Euskaltzainak* bildumaren barruan. Antonio Zavalak lanari egin zion hitzaurrean Arrueren bizitzari buruzko zertzelada batzuk azaldu zituen: karlista, euskaltzalea, bertsozalea, 1936ko gerra hasi zenean,

Donostia errepublika-rra izaki, ezkutuan egon behar izan zuen. Gero, Francoren dik-taduran, “bear baiño gorago” hitz egiteaga-tik erbestera bidali zu-ten. Euskal idazleei buruzkoak dira libu-ran bildutako testu asko, baina ez dira falta itzulpenak edo gastro-nomiaz hitz egiten du-tenak. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako testuak dira. ■



Idaztiak eta hitzaldiak.
Antonio Arrue.
Euskaltzaindia.
272 orrialde.
10 euro.

Victor Hugori eskainitako zenbakia

Hegatsen 43. zenbakia Victor Hugori eskai-ni diote. Fito Rodriguez EIEko presiden-teak haxe dio aldizkariaren hitzaurrean: “Koldo Izagirrek dioenez (...) Hugo izan da lehena, kanpoko idazleen artean batik bat, bere idazkietan euskaldunak modu folkloriko bezain faltsuan deskribitu izan ez dituen”. Ordainetan, frantziarrari buruz aritu dira *Hegatsen* orrietan hainbat euskal idazle: Igor Estankonak haren obran murgil egin du; Luis Mari Bandre-sek euskaldunekin izandako harremanaz idatzi du; Jokin Apalategik *Miserableak* nobela azpimarratu du. Mikel Alberdiren

eta Joxe Azurmendiren artikuluek ixten dute aldizkariaren edukia. ■



Hegats 43.
Batzuen artean.
EIE.
113 orrialde.
7 euro.